

Y cuando loco, embriagado de gozo, ví tornar los guerreros bascos á sus rocosas cumbres, roja la faz, sombría la mirada, á dormir en el regazo de sus esposas sobre las sangrientas armas, grité, llamélos con grito entusiasta *anayak*, hijos ínclitos de mi pátria Euskaria, y al volver ellos sus rostros altaneros hácia mí, y al verme ataviado modernamente, cerca de una ciudad que más que euskara parece extranjera, oí que decían en su rudo lenguaje lleno de amenazas: *Zaude isillik; etzaitugu ezagutzen.*

JOSÉ M.^a BASARRIALDE.

SAGUBAK ETA KATUBA.

Tranpa alanbrezkoan
sarturik bi sagu,
alkarri esan zien
ongi gera gaur gu;
emen bada zer jana,
ona, naiko gazta,
au dan arte galduko
ezta gure kasta;
eta gozoro jaten
ziranean asi,
berak zirala tranpa
barrenen nagusi,
iruriturik zerbait
oin soñu an alde,
ikaraz asi ziran
egin nayan aide;
bañan nola etzuten
aterik billatzen,

ibilli aren tranpa
guziya miratzen,
kanpora irteteko,
gordetzeko andik,
zebizkitela ala
estutasunaundik,
gertaturik sagu bat
garai arretan an
esan zien, zer zuten
ala zalapartan;
naiko gazta aurrean
irukirik ala,
nai ezik utzirikan
dantzan zebiltzala;
ura bazegoken an
ayek zeuden gayan
etzukela utziko
gaztarikan mayan:

—jai! esan zien, emen
 arkitzen baziña
 gazta irurituko
 litzaizuke miña;
 —ez, nik or banengoke
 pozik nuke jango,
 ez nintzake itzuli
 izutu ta joango:
 eta artan katubak
 egiñik *mirri mau*
 sagubak saltatuta
 esan zuben ¿zer dau?
 eta asi zanean
 gorde nayan andik,
 besteak deitu ziyen
 tranparen barrendik,
 esanaz:—atoz onuntz


ez izutu ta joan;
 —ez, esan zien, eztet
 nai gaztarikan jan;
 eta artan katuba
 ate zulotikan,
 pasarik, atzeman ta
 saguba zuben jan.

.

Onek erakusten du
 panparroi askori,
 gerta deikiokena
 dala kontu ori;
 ez burlik egiteko
 albada iñori,
 burla orretan bera
 ez dediñ erori.



ASTOA ETA ARZA



Bizkarrean kaja bat
 zubela, penoso,
 zijoala astoa
 nekaturik oso,
 arza aterarikan
 bidera mendian,
 para zuben biziro
 estura aundian.
 Esan zion—¿astoa
 zenbat urte dituk?
 zeñi eranzun zion
 —amalau kunplituk,
 —¿zer daramak gañean?
 ¿kaja orretan zer?

¿neretzako jankairik
 ezaldek or ezer?
 —bai jauna, dago urdai
 guri chit gozoa,
 or da barrenen iya
 cherri bat osoa;
 —obea dek ori dan
 beste gauzik ezdan,
 esan zion, bestela
 i jango indutan;
 eta biyen artean
 jachirikan kaja,
 astoari joan zedin
 libre zion laja.